


Galaktika

Aste honetan, Durangoko Azokako Euskaltzaindiaren standa promozionatzeko inoiz egin den publizitate kanpainarik ikusgarrienean, Euskaltzaindiaren Gramatika Batzordea ki-deek dimisioa eman zuten; ondoren, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuaren arduradunak ere bai.

Oilartzaindia edo Euskaltzain Txapelketa Nagusia bezalako birtaioak entzun dira. Iban Zalduak gogoratu eta deitoratu du Andres Urrutiaren eta Anjel Lertxundiren artean euskaltzain nor egin aukeratu zutenen begi txarra. Xabier Mendigurenek iragarri du Erramun Gerrikagoitia



Jira
Angel Erro

guizon prepositiboa aukeratu dutela Gramatika Batzorde berriaren buru.

Ni beti surtan egoten diren sare sozialetan bota diren gauzak, batzuk grazioso askoak, jasotzera murgatu naiz (bai, nire herrian hala ersaten da) hemen, besterik gabe; baina nago, dena den, Gerrikagoitiak baino aukera gehiago di-tuela Yodak, Irati oihaheko bolizko do-rretik lan eta agiraka egiten duen Mitx-erena XV.aren zerbitzari leialak. Nire

bozka haren alde. Ederra eman astindu diezaioko gramatikari euskal. Huarteren zintetan Patxi ez hainbeste, Zaldieroaren, bai-na Wars film Star George Lucasen hexalogian era-kutsitako iraultzailea sena erakusten gramati-kari badu. Indarra bekio lagun.

Beltxarga

Kasualitatez hasi zen ahateei jaten ematen. Kasualitatez eta amorriz. Lantegitik bota eta astebetere-edo izango zen. Goizean goiz lehena izan zen enplegu bulegoan langabezia paperak taxutzen, eta antzera gizarte seguran-tzakoan. Haiek bukatutakoan beste ze-reginik ez zuenez enkarguak egiteko esan zion andreak, eta, egia zenez beste zeregirik ez zuela, isilik eta burumakur onartu zuen manda-tua. Han ibili zen Eroskin, ulerte-zina zitzaion andreen kode ba-tean, deseroso, bere desti-nu petrala madarikitzen. Gainera, harategiko Aran-txak, lesbiana-marimutil-zatar horrek, adarra jo

zion, edo hala iruditu zitzaion behintzat, irribarrez, «zer, nahiko lo eginda, ezta?» galdetu zionean.

Ezkerreko besazpian ogia eta esku beretik zintzilik dilista, makarroi, jogurt eta laranjaz beteriko poltsa zeramala ateraz, eta osterantzeko guztia ostia txarrez gainezka zuela. Ibai ertzera heltzean, eskuineko eskuak pusketa bat erazi zion ezker besapeko ogiari, eta ibaira jaurti zuen, ahateen aldera, indarrez, manifestariekin polizia harriak nola.

Ordutik, egunero itzuli da, bezperako ogia aldean hartuta. Eta han ibiltzen da zatiak bota eta bota, hariak eta ahate berdexka, distiratsu, gazte lotsagabe-ek, aseta, beltxarga beltz, zahar, lumagabetuari zer-bait jaten lagatzen dioten arte.



Bira
Idurre Eskisabel

Zuzendaria:

Martxelot Otamendi

Zuzendariordea:

Iñaki Petxarroman

Edizio arduraduna:

Jose Anjel Aldai

Argitaratzailea:

Euskal Editorea SM

Publizitatea: Bidera

publizitatea

Lege gordailua:

SS-0662/03

Batzorde parekidea:

0712184059

Egoitza nagusia:

Martin Ugaldede kultur parkea.

Gudarian Etorbidea, z/g.

20140 Andoain.

Telefonoa:

(0034) 943-30 40 30

Faxa: (0034) 943-30 09 43

Webgunea:

www.berria.info

Posta elektronikoa:

berria@berria.info

Publizitatea:

publi@bidera.eu

Harpidetza saila:

(0034) 943-30 43 45

Date: 08/12/2013

Exemplar: 3.246

Editore: Euskal Editorea S.L.

Directeur de publication:

Martxelot Otamendi

Comission paritaire:

0712184059

Delegation Labour:

Lisses 3, 64100-Baiona.

Tel.: (0033) 559256220.

Fax: (0033) 559254303.

E-mail: lapurdi@berria.info

ORDEZKARITZAK

Araba: Bizenta Mogel, 6.

Posta kodea: 01008

Gasteiz. Telefonoa:

945-15 04 52. Erredakzioko

faxa: 945-14 83 07.

Posta elektronikoa:

araba@berria.info.

Bizkaia: Uribitarte kalea, 18,

3. C. Posta kodea: 48001

Bilbo. Telefonoa:

94-435 26 00. Erredakzioko

faxa: 94-423 49 75.

Posta elektronikoa:

bizkaia@berria.info.

Lapurdi: Lisses, 3. Posta

kodea: 64100 Baiona.

Telefonoa: 559-25 62 20.

Faxa: 559-25 43 03.

Posta elektronikoa:

lapurdi@berria.info.

Nafarroa: Iratxeko Monaste-

ria, 45, 13. Posta kodea:

31011 Iruñea. Telefonoa:

948-36 66 22.

Publizitatea: 948-36 66 23.

Posta elektronikoa:

nafrarrea@berria.info.

berria

Justizia trantsizionala bai, baina nondik hasi?

Jon Mirena Landa

Zigor zuzenbideko irakaslea
EHUn

Justizia trantsizionala duela gutxi jaiotako zuzenbide-arloa dugu. XX. mendeko 80 eta 90eko hamarkadetan sortu zen, hain zuzen ere, bai Latinoameriketako bai Ekialdeko Europako justizia-egaria asetzeko asmoz. Kasu horietan, diktaduratik demokraziaranzko aterabidean gertatuko sarraskiak, giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoak, ezin ziren besterik gabe ahaztu: erantzuna eman behar zitzaion. Hori bai, aldi berean, demokrazia-rako urratsak ez ziren arriskuan jarri behar. Justizia eta demokrazia biak bideragarri egiteko eronkaren aurrean, zuzenbideak lagundu behar zuten iraganbidea errazten, ahalbidetzen. Diktaduratik demokraziarako trantsizioak, iraganbideak, hortaz, izena eman zion zuzenbide-arlo berri honi. Eta horretarako justizia modu berriak asmatzen hasiak ziren, hala nola egia-batzordeak, ikerketa penal berriak, biktimei laguntzeko programa bereziak, erakundeen aldaketa estrukturalak, gertatutakoaz gogoratzeo ekimenak, eta abar. Justizia egin nahi zen, nola edo hala, dena ahazteko edota amnistiatzeko ereduaren aldean.

Trantsizioa gertatzen denetik, giza eskubideen urraketei ez zaie beti berehalaxe ekiten. Askotan denbora asko pasatzen da demokrazia-erregimen berria formalki hasi eta urraketak kontuan hartu bitartean. Beraz, pixkanaka-pixkanaka justizia-trantsizionala, bere jatorri historikoa gaindituz, ezar-tzen hasten da, ez bakarrik iragan-

bidean diren Estatuetan, baizik eta, oro har, giza eskubideen urraketa larriak konpondu gabe dituzten herrialdeetan ere bai.

Eta azken hori da hain justu ere Euskal Herrian dugun kasua. Batzuek esango dute gure herrian trantsizioa ez zela gertatu; beste batzuek egin zela baina txarto, benetako erreformarik gabe; azkenik, batzuentzat agian gauzak egin ziren behar bezala. Bakoitzak, beraz, ikuspegi politiko ezberdinetatik abiatuta epaituko du, nahi duen bezala, Espainiako Estatuan 1975-1978. urteetatik aurrera hasi zen iraganbidea. Baina inork ere ukatu ezin duena zera da: giza eskubideen urraketak, larriak eta sistematikoak, ez zirela ikertu; ez zirela epaitu; ez zirela zigortu; ez zirela aitortu; ez zirela erregistratu; ez zela haien gainean memoria historiko egokiari ekiteko bide taxuzkorik egin. Espainiako guda zibilaren eta hari jarraitu zion erreprosiorearen ondoren, gainera, 1978tik aurrera alegia, indarkeriak aurrera jarraitu zuten: batetik ETArena; bestetik Estatuarena. ETArena, ia oso-osorik justizia-administrazioaren bitartez epaitua. Estatuarena, aldiz, ikertu gabea, epaitu gabea, aitortu gabea, kasu gutxi batzuen salbuespenez.

Justizia trantsizionalak, beraz, erantzun gabe gelditu diren giza eskubideen urraketei, guztiei, erreparratu nahi die. Justizia egin nahian. Baina nola?

Nondik hasi? Nola jar daiteke martxan Espainiako Estatuak eta Frantziakoak nahi ez badute? Nola hasi, baldin eta epailek ez badute ezer egin nahi, ordenamendu juridikoaren interpretazio oso murriz-taileen lagun? Nola apurtu isiltasuna harresia eta zigorgabetasuna amnistia-legea indarrean

dugula? Nola hasi, tortura ofizialki eta sistematikoki ukatzen bada, Estatu biktimari aitortzeko ahalegin ofizialik ez badago?

Justizia—dei dezagun trantsizionala ala ez, baina justizia—martxan jartzeko prozesu eta estrategia behar dugu. Ez da zerutik eroriko. Ez da dena batera etorriko. Batzuek ahal duten guztia egingo dute inoiz gauza ez dadin. Eta horregatik arrazoia edukitzeaz aparte, estrategia behar dugu. Estrategia, alegia, prozesu bat diseinatzea. Eta hor, nire aburuz, giza eskubideen urraketen egia gakoak dugu. Gertatu ziren giza eskubideen urraketak ezagutu behar ditugu. Ofizialdu behar ditugu. Eta ofizialtzeak eskatzen du egia mekanismoren bat. Ez bagara kapaz informazioa biltzen eta azalarazten, giza eskubideen urraketen kontakizuna zer-bait pribatua izango da aurrerantzean ere. Alderdi batzuen ondare politikoa izango da: haiek errebindikatzeko dutena; haiek salatzen dutena; haiek borrokatzen dutena. Baina pribatua azken batean, eta, hortaz, herri-ondasuna izan gabekoa.

Heldu da garaia, beste urrats bat emateko. Kapaz bagina giza eskubideen datuak biltzen eta antolatzen, zehaztasunez, taxuz, beste urrats batzuk prestatzen hasiak izango gineteke.

Eta, horretarako, Eusko Jaurlaritzak 107/2012 Dekretua, giza eskubideen biktimei buruzkoa, aukera bat da. Ez da hau unea Dekretuak dituen mugak—badituenak—nabarmentzeko. Ez da hau unea Dekretua nola sortu zen aztertzeo ere. Dekretu horretan potentzial handia dugu, datuak ofizialtzeo: egia pixkanaka ateratu dadin. Izan ere, laster Gasteizko Legebiltzarrean Dekretu horren segida eztabai-

dagai izango da. Bide guztiak itxita daudela ematen duen une honetan, horra hor leihatu da: leihatu txikia, baina benetakoa.

Amets egin dezagun. Jo dezagun dekretua serio hartzen dugula; jo dezagun Euskadiko alderdi garrantzitsuenek dekretua adosten eta bultzatzen dutela; jo dezagun onartzen dela eta horren edukien artean Estatuak sortu dituen biktimei aitortzeari ekiten zaiola: indar politikalek hil zituztenak eta lesionatu zituztenak; torturatuak; indar parapolitzaiek hil zituztenak eta lesionatu zituztenak bai eta hildako eta lesionatuakoa inkontrolatu izenekeon aldetik. Eta horiek guztiak 1960tik 2013ra arte.

Hala balitz, eta lehenengo aldiz gure historiari, hiritarrok izango genuke leihatila bat egia azalarazten joateko. Eta horrek olatu handi bat sortzen lagunduko luke: egia-aren olatu. Eta mota horretako olatuak, alderdien atzaparretako kontrolrik gabekoak, ofizialduko luke lehenengo oinarria gure egia-aren jabe, herri gisa, izan gaitezen. Horrek beste urrats batzuk ekarriko lituzke, inork ez dezala zalantzarik egin.

Amets horren aurrean, ordea, gaur horrelako prozesua hasi gabe, batzuek diote justizia trantsizionala ez dutela nahi, jakin barik ere zer den eta bakar-bakarrik ezker aber-tzaleak omen duelako eskatzen. Beste batzuek, ordea, «dekretua» gutxitzat jotzen dute, potentzialaz jabetu barik, prozesua eraiki behar dela konturatu gabe. Noski, gure herriaren justizia, bakea, berradiskidetzea ez da dekretu batetik etorriko! Nik, ordea, esango nuke: horretatik bakarrik, ez, baina zer gal-tzen dugu horri ekitearekin? Nork dio ezin dela izan prozesu eta estrategia oso baten lehen urratsa?